

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

PROPOSAMENA

Donostiako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko VI. Plangintzaren jarraipenerako batzorde ez iraunkorra sortzekoa

EH Bildu udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90., 91. eta 148. artikulua oinarri hartuta, Donostiako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko VI. Plangintzaren jarraipenari buruzko BATZORDE EZ IRAUNKORRA sortzeko PROPOSAMEN hau aurkezten du.

JUSTIFIKAZIOA

Euskararen erabilera Donostiako Udalean normalizatzeko VI. Plana (2018-2022) garatzen ari da. Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aplikazioaren bidez eta Plan Estrategikoan jasotako adierazleen arabera egingo dira. VI. plangintza aldiaren bukaeran, zuzendaritza bakoitzeko Erabilera Batzordeak ebaluazio txostena egingo du eta zuzendariak dagokion arduradun politikoari eta Batzorde Teknikoari horren berri emango die, jarraipena egin dezaten. Euskara Zerbitzuaren eginkizuna izango da, zuzendaritza guztietako ebaluazioak kontuan hartuz, VI. plangintza aldiari dagokion Donostiako Udalaren ebaluazio txosten orokorra egitea.

Aipatu bi egitura horiek osaera eta eginkizun hauek dituzte:

1. Hizkuntza Normalizazioaren Batzorde Teknikoan, Udal Gobernuko hainbat zinegotziz gain, Lehendakarietzako zuzendaria, Euskara Zerbitzua eta Udaleko langileen ordezkariak daude. Batzordearen egitekoa da Euskararen Erabilera Normalizatzeko planaren jarraipena egitea, hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak betetzeko proposamenak egitea eta langileentzako euskara ikastaroen baldintzak aztertzea eta horien ezarpenari jarraipena egitea.
2. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Batzordeetan, zuzendaria, langileak eta Euskara Zerbitzua daude. Batzordeek honako funtzio hauek dituzte: Plan Estrategikoa zuzendaritzara moldatzea, lehentasunak jarrita, eta ekintzak eta baliabideak zehaztuta; Planaren jarraipena egitea.

Beraz, Donostiako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko VI. Planaren jarraipena egiteko egituretan ez dute tokirik udal taldeek. Gure taldearen ustez, beharrezkoa da Udal Gobernuak, Udaleko langileak eta udal talde politikook batera joatea euskararen erabilerak aurrera urrats esanguratsuak egin ditzan Donostiako Udalean.

Hain zuzen ere, agintaldi honetan, EH Bilduk hainbat proposamen egin ditu euskararen erabilera bizkortzeko gure udalean, hala nola, plangintzan atal berria sortzea, Udalbatzari eta horri lotutako funtzionamendu osoa euskalduntzeari lotua; euskarazko atal gehiago izendatzea (gutxienez beste hiru atal); Udalak ematen dituen dirulaguntzetan jarraipen sistema bat ezartzea hizkuntza irizpideak betetzen direla ziurtatzeko; Planaren VI. Plangintzan jasota dauden eta lanpostuen hizkuntza

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

eskakizunei dagozkien salbuespenak kentzea; udal dokumentazioa hasieratik euskaraz sortzea; edota udal markesinetan publizitatea gutxienez gaztelaniaz adina euskaraz jartzea.

Aipatu bezala, uste dugu beharrezkoa dela Udal Gobernua, Udaleko langileak eta udal talde politikook batera joatea langintza honetan. Horiek horrela, EH Bildu taldeak DONOSTIAKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO VI. PLANGINTZAREN JARRAIPENARI BURUZKO BATZORDE EZ IRAUNKOR BAT SORTZEKO PROPOSAMEN hau egiten du.

- **Helburua:** Euskararen Erabilera Normalizatzeko planaren eta hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideen ezarpeni jarraipena egitea, eta ezarpen horiek bizkortzeko proposamenak egitea. Era berean, Udalbatzaren euskalduntzea lortzeko lan ildoaren diseinua egitea, eta horren ezarpenari jarraipena egitea, bete dadin bermatzeko eta hobekuntzak proposatzeko.

- **Osaera:** udal talde bakoitzeko kide bat. Botoa haztatua izango da.

- **Iraupena:** Euskararen Erabilera Normalizatzeko VI. Plangintzaren iraunaldia.

- **Bileren araubidea:** hiru hilean behin egingo da.

Donostia, 2021eko martxoaren 5ean

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko bozeramailea